



SCHIRMER-EN PROBA

Zer da Schirmer-en proba?

Proba honen bitartez, zure begiek zenbat malko sortzen duten eta malko horiek begiak heze mantentzeko nahikoa ote diren jakin nahi dugu.

Proba sinplea da, ez da agresiboa; pertsona batzuek, hala ere, begia narriturik eta deseroso sentitu dutela adierazi izan dute.

Zer egin behar dut proba egin aurretik?

Betaurrekoak edo ukipen-lenteak erabiltzen badituzu, kendu egin beharko dituzu proba egin aurretik.

Non egingo didate proba?

AUOKKen, Erreumatologiako erizaindegian.

Nola egingo didate proba?

Gela batean, esertzeko eskatuko dizugu. Zerrenda xurgatzaile bat jarriko dizugu begietako bakoitzean, beheko betazalaren barruan. Begiak leun kliskatu eta erdi itxita eduki ahal izango dituzu, presiorik egin gabe.

5 minutu igarotakoan, gutxi gorabehera, papera atera eta edukia aztertuko dugu.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ez igurtzi begiak proba egin eta lehenengo 30 minutuan.

